

Repsol 14 haize errotako parke bat sustatzen ari da Gipuzkoa eta Nafarroa arteko lurretan

GORKA BERASATEGI OTAMENDI :: 11/11/2024

Euskal Herriko parke eoliko handiena bihurtuko litzateke eraikiz gero.

Azken mugimenduek baieztatu dute Repsol parke eoliko bat eraiki nahian ari dela Gipuzkoa eta Nafarroa arteko lurretan. Hernaniko, Berastegiko eta Elduaingo mendi aldeak hartuko lituzke Gipuzkoan, eta Arano eta Goizueta arteko inguruak Nafarroan. Proiektuak ia ehun megawatteko (MW) potentzia izango luke gauzatuz gero, eta hamalau aerosorgailuk osatuko lukete: Euskal Herriko parke eoliko handienetakoa bihurtuko litzateke. Espainiako Gobernua ari da proiektua aztertzen, alde zuzeneko baimena eman ala ez erabakitzeko.

FE Energy enpresako ordezkariak Aranoko Udalarekin jarri dira harremanetan azken hilabeteetan, proiektua lantzen ari direla jakinarazteko. FE Energy parke eolikoaren eta fotovoltaiaren garapenean aritzen den enpresa bat da, eta, haren ordezkariak udalari azaldu diotenez, Repsolentzat ari dira ontzen egitasmoa.

Aste honetan, haize errotentzat aurreikusten duten kokapenari buruzko xehetasun batzuk eman zituzten. Hasieran, FE Energyk sei aerosorgailu aurreikusten ditu Hernanin, bi Aranon, hiru Hernani eta Arano arteko mugan, bat Arano eta Goizueta artean, eta bi Goizueta, Berastegi eta Elduain arteko muga inguruan.

Repsol 14 haize errotako parke bat sustatzen ari da Hernani, Arano, Goizueta, Berastegi eta Elduaingo lurretan - - Tolosaldeko ataria

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/repso14-haize-errotako-parke